



## ZEBERIOKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA





<b>Dokumentuaren izenburua:</b>	<b>ZEBERIOKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa</b>
<b>UT21 Nerbioi-Ibaizabal</b>	<b>UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.</b>
<b>Laguntza teknikoa:</b>	
<b>Jasotzailea:</b>	<b>ZEBERIO</b>
<b>Parte hartu duten udalak:</b>	Arakaldoko udala Arrankudiagako udala Arrigorriagako udala Etxebarriko udala Galdakaoko udala Orozkoko udala Ugao-Miraballeseko udala Urduñako udala Zaratamoko udala Zeberioko udala
<b>Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa</b>	UT21 Nerbioi-Ibaizabal
<b>Orrialdeak:</b>	<b>39</b>
<b>Hizkuntza:</b>	<b>Euskara</b>
<b>Bertsioa:</b>	<b>Behin betikoa</b>
<b>Entrega data:</b>	<b>2012ko iraila</b>

## AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	6
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA .....	9
HELBURUAK .....	10
LAN PROGRAMA.....	11
ARLO TEMATIKOAK.....	12
EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK .....	13



## LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, Diagnostikoaren ondorio nagusienak adierazten dira:

### GIZARTEA ETA EKONOMIA

Zeberio, azken urteetan, gertuko udalerrietatik **biztanleria erakartzea** lortu du. Era honetan, azken hamarkadetan pairatutako biztanle beherakada pixkanakakoa moteltzea eta biztanleria gartzetzea lortu du. Hala eta guztiz ere, herriak dituen eskaerak asetzeko orduan, **biztanleriaren zaharkitzeari aurre egitea** erronka izango da.



**Zerbitzu sektorea** da pisurik handiena duena udalerraren ekoizpenean eta lan okupazioan. Sektore honek joera hazkorra erakusten du industria, nekazaritza, zein abeltzaintza sektoreen kaltetan, azken hauen ekarpena etengabe eta pixkanaka beherantz baitoa. Ekonomi jarduera handitzea zaila suertatzen da, Zeberio lurrean duen kokapenagatik, eta garraio azpiegitura egokien faltagatik. Honen ondorioz, gainontzeko udalerriena baino txikiagoa den per capita BPG azaltzen da.

Zeberio, Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrien artean, **biztanle euskaldun gehien** duen udalerrria da (besteetatik oso aldenturik dagoelarik). Hala ere, beheranzko eboluzioa ageri du. Honek kale zein etxeko erabilera baxuagoan du isla, eta horrek esan nahi du euskararen ezagutzan eta, batez ere, eguneroko bizitzako euskararen erabilera bultzatzen duten politikak garatzen jarraitu beharra dagoela.

Udalerrientzat erronka garrantzitsua da **Kultur**, eta batez ere, **kirol jardueren garapenerako gune**ei etekina ateratzea. Horretarako, gune horiek egokitu eta berritu behar dira. Beste aldetik, Udala eta gizarte eragileen arteko **koordinazioa** garatu behar da, horrela antolatzen diren kultur eta kirol jardueren eskaintza handiagoa eta arrakastatsua izan dadin.

Hauek dira, gizarte ongizate egokia erdiesteari begira, betetzeke dauden beste erronka batzuk: **gizarte ongizateko** politikak indarberritzea, **genero berdintasuna** bultzatzeko zeharreko ekintzak garatzea (gizarte, lana eta udalerraren arloetan) eta **Irisgarritasun Plana** garatzea.



Etxebizitza politikaren arloari dagokionez, laster HAPOaren berrikuspena burutuko da. Bertan, besteak beste, lehenetsun hauek kontuan hartu beharko dira: **Etxebizitzen zaharberritzea** sustatzea, **birgaiketa zein energi iraunkorren erabilera** garatzeko diru laguntzei buruzko informazioa indartzea, eta **eraikita dagoen ondarea kontserbatzea** (hobekuntza eta erabilera eraginkorra lehenetsiz).

Bidenabar, etxebizitza hutsen alokairuaren bultzada erronka erantsia da eta, horrenbestez, eskaintza eta eskaeraren arteko bitartekaritza neurrien bidez jardutea aurreikusita dago.

### LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

Zeberio, Nerbioi eta Arratiako aranen artean, izen bereko ibarrean kokatuta dagoen udalerrri **arrunt zabala** da. Bere orografia dela eta, errekek gurutzatzen duen lurraldean zehar hedatuta dagoen herria da. Herriko etxebizitzak, zuzkidurak eta industria haranaren hondoan kokaturik agertzen dira, ibaiaren luzeran zehar. Landa nukleoak eta etxe sakabanatuak ugariak dira. Udalerrri honetan lurzoru urbanizaezinak lurraldearen zati handia hartzen du eta bere **paisaia** basoak dira gailentzen direnak, koniferoak nagusiki eta jabego pribatukoak.

Herri planeamenduko **Plan Orokorraren berrikuspena** udalerrriak etorkizunari begira duen erronka esanguratsuenetakoa da. Planeamenduaren berrikuspenak, iraunkortasun eta energi eraginkortasuneko irizpideak kontuan izateaz gain, ondokoak ere baitaratu behar ditu: arkitektura intereseko eraikinak, arkitektura ondarearen elementuak, ekonomi jardueren birkokatzea (beren ingurumen eragina txikitzeko), eta nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babesa.



Udalerrriak natur balioa duen ingurua du. Besteak beste, ondoko elementuak nabarmentzen dira bertan: Batasunaren intereseko habitatak, Gorbeia BGLa, Gorbeia-Ganekogorta korridore ekologikoa eta beronen amortiguazio eremua, eta ugatzaren Interes Berezikiko Gune bat. Hauetan babestutako eremuak eta natur intereseko lekuak daude, batez ere ur-ibilguzi loturikoak. Hauen babesa, kontserbazioa, agerian jartzea eta goratzea, **inguru naturalaren** antolamendu eta kudeaketarako adierazgarri bezala hartzen ditugu.

Bere inguru funtzionalarekin dituen **errepide bidezko komunikazioak** onak dira. Inguruko herriekin errepidezko garraio publikoak medio dituen loturak, ordea, eskasak dira. Honen ondorioz, oinezkoen zirkulazioa, eta ibilgailu pribatuarekiko alternatiboa den mugikortasunean zailtasunak daude. Honek, batez ere, batxilergoa ikasten ari diren ikasleei eta hirugarren adineko pertsoneri eragiten die.



Udalerriko puntu desberdinetara eta ekipamenduetara iristeko **mugikortasun** baldintzak hobegarriak dira. Udalak aurreikusita dauka oinezkoen eta bizikletazkoen mugikortasunari loturiko azpiegituren hobekuntzarako ekimenak bultzatzea, eta baita landa bideen inbentarioa egitea ere.

## BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

Zeberio, **Bizkaiko Ur Partzuergoan** berriki sartu ondoren, ahaleginak egin behar ditu banatutako eta kontsumitutako ur bolumenak hobe kontrolatu eta erregistratzeko, eta baita ere udal saneamendu sarea zein sareak estaltzen ez dituen etxebizitzaren saneamendua hobetzeari begira.

**Urteko biztanleko hondakinen sorrerak** beheranzko joera erakusten du. Era berean, hondakinen berreskurapen portzentajea hazi egin da azken urteetan, hondakinen murrizketan eta banaketaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitu beharra dagoen arren. Izan ere, eragile guztien sentikortzeari, herritarrei zuzenduriko neurri sustatzaileen ezarpenari, administrazioek exenplu emaile gisa duen paperari, eta banakako zein komunitateko konpostaje sistemen bultzatzeari ekin behar zaio. Aldi berean, informazio zehatzagoaren eskuratzea ahalbidetu behar zaie herritarrei.

**Udalerrriaren energi egiturak** EAEko beste udalerrri askorenaren antzekoa da: erregai fosilen erabilera handia, eta Berotegi Efektuko Gasei (BEG) eginiko ekarpen nabarmena. Beraz, arlo honetan sakontzea udalerrriak duen beste erronka handietako bat da, ez soilik maila publikoan baizik eta baita maila pribatuan ere. Era horretan iturri ez berriztagarriekiko menpekotasuna murriztuko da, eta BEGen murrizketari ekarpena egingo zaio. Azken urteotako energi kontsumo gero eta txikiagoa izanda, eta etxeko kontsumo egonkorra kontutan edukirik, energia berriztagarrien garapena eta kale argiztapenaren eraginkortasuna bultzatzea lehentasunezko zereginak bihurtu dira.



## SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA



**Partaidetza kultura nahiz kontzientzia komunitarioa sortzen duten partaidetza egitura berrien sendotzeranzko** bidean aurrera egitea helburuetako bat da. Izan, prozesu hasiberria da, baina fruituak jasotzen ari dira jada.

Egunez eguneko **sentikortzean, prestakuntzan eta jardunbide egokietan** oinarritutako herritarren eta Tokiko Administrazioaren ohitura aldaketa, udalerriaren tokiko iraunkortasun prozesuaren giltzarria da.

Burutzen ari diren politika batzuen zeharreko izaerak **departamentu arteko koordinazio eta elkarlana** are **gehiago indartzeko** beharra uzten du agerian.



## AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxeei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21**: Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
2. **Industriako Agenda 21**: Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
3. **Eskolako Agenda 21**: Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
4. **Hondakinen kudeaketa**: Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorrak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
5. **Mugikortasun iraunkorra**: Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.

6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Zeberioko Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.

## HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitu.
- Plana iraunkortasunaren tokiko kudeaketaren bilakaerara egokitu.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerraren giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutuan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berrian sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

## LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarritzko metodologia "**EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa**" oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarritzko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, **lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Udal teknikariek bakarkako elkarrizketen bitartez edo talde lanaren bitartez Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** herritarrei zuzendutako pertzepzio inkesta baten bitartez, web galdetegi baten bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (\*) bitartez seinalatu dira.*)

## ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

### GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. Biztanleria
2. Ongizatea eta gizarteratzea
  - Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak
  - Genero berdintasuna
  - Elkarbizitza
  - Osasuna eta osasun zerbitzuak
  - Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena
3. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
4. Etxebizitza
5. Garapen ekonomiko eta lan merkatua
  - Ekonomia egitura eta jarduera maila
  - Lehen sektorea
  - Bigarren sektorea
  - Zerbitzuen sektorea
  - Turismo eta ostalaritza sektorea
  - Enplegua eta lan merkatua

### NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

9. Ura
10. Hondakinak
11. Energia
12. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)
13. Arriskuaren kudeaketa eta jarduera ekonomikoak
14. Erosketa publikoa eta udal administrazioa ingurumen kudeaketa
15. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra

### LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK


6. Lurraldea eta plangintza
7. Natura eta bioaniztasuna
8. Mugikortasuna eta garraioa

### SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

16. Komunikazioa, sensibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
17. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:






- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehentasunezko jarduera esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.

<p><b>BALORAZIOA</b></p>  <p><b>Ez baloragarria</b></p>	<p>Balorazioa egiteko irizpideak "EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa" agertzen dira.</p>
--	---








**EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK**




**GIZARTEA ETA EKONOMIA**

**1. BIZTANLERIA**











<i>Azpiemua</i>	<i>Egoera</i>	<i>Ondorio nagusiak</i>	<i>Hobekuntza helburuak</i>
<b>1.1. Lurardearen testuinguruan kokatzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko dentsitate txikieneko udalerria.</li> <li>• 2004-2011 bitarte dentsitatea hazi da km<sup>2</sup>-ko 21,76 biztanletik 22,52 biztanleraino.</li> <li>• 1996 urteaz geroztik biztanleria ugaritzen hasten da. Gertaera honek etxebizitzak eraikitzeari loturiko erakarren politika bati erantzuten dio.</li> </ul>	<p>✓ Ez da eskuhartzeko lehentasunezko arlorik identifikatu.</p>
<b>1.2. Biztanleriaren bilakaera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleria flotante ugaria dela jotzen da.</li> </ul>	
<b>1.3. Egitura demografikoa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zaharkitze indizea jaitsi egin da eta 2011ean %23,24an kokatu da. Hala ere, eskualdeko, probintziko eta autonomia erkidegoko batez bestearen gaineratik dago.</li> <li>• Joera mantenduz gero, datozen hamarkadetan biztanleriak zaharkitzen jarraituko du.</li> </ul>	
<b>1.4. Mugimendu naturala eta migratzailea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heriotzeen kopurua jaiotzena baino handiagoa da urte gehienetan.</li> <li>• Emakumeak gehiago dira 40-44 urte tartean eta 85 urtetik gorakoetan. Azken tarte honetan emakumeen presentzia are handiagoa da.</li> </ul>	
<b>1.5. Populazioaren banaketa, lurraldeka</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Atzerritar kopurua UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEko batez bestekoen azpitik dago.</li> <li>• Hiri multzoaren dentsitatea 10,50 etxebizitza/ha da, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren oso azpitik, udalerririk dauzkan landa auzoen ugaritasuna dela eta.</li> </ul>	

## 2. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA






Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>2.1. Gizarte arazoak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleriaren pixkanakako zaharkitzea, eskualdeko beste udalerrriak baino areagokoa.</li> <li>• 2003 eta 2008 bitartean Oinarrizko Errentaren jasotzaile diren familiak ugaritu egin dira.</li> <li>• 2003 eta 2007 bitarte Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetzak unitateak ugaritu egin ziren.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gizarte ongizateko politikak indartu.</li> <li>✓ Etxeetan dauden hirugarren adinekoentzat laguntza areagotu, bereziki mugikortasun aldetik dituzten oztopoak gainditzeko.</li> </ul>
<b>2.2. Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2011 urtean ez ziren Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eskaera guztiak guztiz asetu.</li> <li>• Atzerritaren kopurua ez da handia eta, oro har, ongi integraturik dago.</li> <li>• Atzerritarrek gizarte zerbitzuen erabilera txikia egiten dute. Egoera horren arrazoiak ez dira ezagutzen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Genero berdintasunerako zeharreko ekintzak, beste eskuduntza arlo batzuk medio garatu.</li> <li>✓ Hiritarren segurtasunaren segimendua eta Ertzaintzarekin koordinazioa.</li> </ul>
<b>2.3. Udalak gizarte zerbitzuetan eta elkartasun ekintzetan egiten duen gastu ekonomikoa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi gizarte langilek, laguntzaile batek eta gizarte hezitzaile batek zerbitzu ematen dute.</li> <li>• Pertsona nagusientzako bi egoitza daude.</li> <li>• Herritarrek Miravallesen kokatuta dagoen eguneko zentrorra jotzen dute.</li> <li>• Ez dago berdintasun arloko berariazko zerbitzurik.</li> <li>• Ongizateko aurrekontua hazi egin da 2001 eta 2008 bitarte, baina denbora tarte guzti horretan UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko udalerrien artean zifra txikiena duena da eta Bizkaiko batez bestekoaren azpitik mantentzen da. 2012ko aurrekontuetan gizarte ongizateko politikentzat partida berezia sartu da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Teknologia berrien eskuragarritasuna hobetu eta haien inguruko prestakuntza indartu.</li> </ul>
<b>2.4. Berariazko gizarte politikak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak dirulaguntzak ematen ditu jubilatuen elkarteak egitarauak eta jarduerak antola ditzan.</li> <li>• Ez da aukera berdintasunerako ez etorkinei zuzenduriko inolako berariazko politikarik garatu.</li> </ul>	
<b>2.5. Gizonezko eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, lanaren esparruan</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irisgarritasun Plana dago 2006 urteaz geroztik.</li> <li>• Irisgarritasuna betetzen duen udal ekipamendu eta eraikinen portzentaia 2009an UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEko batez bestekoaren gainetik kokatzen da. Hala ere, oztopo batzuk geratzen dira.</li> </ul>	
<b>2.6. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, udal esparruan</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zeberrioko udalerrriak duen emakumeen jarduerak tasa eskualdeko batez bestekoaren antzerakoa da.</li> <li>• Emakumeen langabezi tasa 2011n UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren gainetik eta Bizkaiko eta EAEko batez bestekoaren azpitik kokatzen da.</li> </ul>	
<b>2.7. Genero berdintasuneko politikak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Politika eta gizarte jarduerak arloko partaidetza eta lidergoari dagokionean, emakumearen presentzia gizonarena baino txikiagoa dela jotzen da, baina azken urteetan parekotzen doa.</li> <li>• 2009an delituak ugaritu egin dira %70ean 2003 urtearekin alderatuz gero, baina antza denez</li> </ul>	

<i>Azpieremua</i>	<i>Egoera</i>	<i>Ondorio nagusiak</i>	<i>Hobekuntza helburuak</i>
<b>2.8. Bizikidetzeta eta herritarren segurtasuna</b>		<p>2010-2011 tartean ez da hazkuntza nabarmenik egon. Azken aldian kezka apur bat sortzen ari da isolatutako herriguneetan gertatzen ari diren lapurretak direla eta baina ez da alarma punturaino iristen.</p>	
<b>2.9. Ekipamenduak eta osasun langileak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte kohesio apur bat falta dela uste da.</li> <li>• Lehen Harrerako Kontsultorio bat dago, sendagilea eta erizain bat duena.</li> <li>• Osasun mailako estaldura egokia da.</li> <li>• Zenbaitzuk aurretiko hitzordurako sistema ezar dadila eskatzen dute.</li> </ul>	
<b>2.10. IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Internet konexioa zenbait gunetan zaila da eta beste gune batzuetan ez dago estaldurarik.</li> <li>• Kzguna badago.</li> <li>• Banku zerbitzua murrizten ari da, egun bakarrean zabaltzen da.</li> </ul>	






### 3. HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

Azpiemua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>3.1. Hezkuntza eskaintza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalaren hezkuntza eskaintza haurreskolak eta haur eta lehen hezkuntzak osatzen dute.</li> <li>Haur hezkuntzan matrikulatutako ikasle kopuruak behera egin du eta lehen hezkuntzkoak, berriz, gora.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Aisialdirako hezkuntza instalazioen egokitzapena bultzatu.</li> </ul>
<b>3.2. Hezkuntza eskaera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza publikoaren eskaintza nahikotzat jotzen da, nahiz eta nabarmendu beharra dagoen haurreskolak eskaintzen dituen plazak mugatuak direla.</li> <li>Hezkuntza instalazioei dagokienez, eskola patioa guztiz egokia ez dela uste da, itxita dagoen gune bat baita eta gainera zati txiki batean baizik ez dago estalita.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Eskolako ordutegietara egokitutako garraio publikoko eskaintza bat bultzatu.</li> </ul>
<b>3.3. Eskaintza-eskaera balantzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskola adinean dagoen biztanleria 0-4 urte eta 15-19 urte bitartean gora egiten ari da. Aitzitik, 10-14 urte eta 5-9 urte bitartean behera egiten ari da.</li> <li>Eskaera udalerrri bertako edo inguruko herrietako hezkuntza eskaintzak guztiz asetzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Datuak eskuratu eskola porrotari buruz era sistematiko batean eta datuak aztertuta, eskola laguntza programak martxan jartzea aztertu.</li> </ul>
<b>3.4. Herritarren heziketa emaitzak eta heziketa maila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Lehen hezkuntzan dagoen plaza kopurua 0 eta 4 urte bitarteko biztanleriaren ugartzeari, erantzuna emateko adinakoa dela uste da.</li> <li>Eskola porrotaren maila zein den ez da ezagutzen. Ez dago eskola laguntzarako inolako zerbitzurik.</li> <li>Biztanleriaren hezkuntza maila eskualdeak duenaren nahiko antzerakoa da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Euskararen Biziberritze Plana berrikusi eta euskarak gizartean duen erabilera sendotu Plan berriak jasoko dituen neurriak udalak hezkuntza, kultura eta aisiako arloetan garatzen dituen beste ekintza batzuekin koordinatuz.</li> </ul>
<b>3.5. Euskalduntze maila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskualdeko udalerrri euskaldunena.</li> <li>Biztanleria euskalduna 1996 eta 2006 bitarte txikitu egin da 12,4 puntu portzentaletan. "Ia euskalduna" den biztanleria da gehien handitzen ari dena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Administrazioan egiten den euskararen erabilera normalizatu Euskararen Erabilera Planak jasotzen dituen neurriak sendotuz eta hautematen diren hesiak gainditzea ahalbidetzen duten neurri berriak bilatuz.</li> </ul>
<b>3.6. Ekipamendua eta baliabideak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxeetan euskararen erabilera gailentzen da %41eko kasuetan, baina erabilera nabarmenki jaitsi da 1996 urteaz geroztik, etxeetan gazteleraren erabilera hazi egin den proportzio berean.</li> <li>Kaleetan erabilera txikia dela uste da, herrian dagoen euskaldun kopurua kontutan izaten bada. Euskara gailentzen dela uste da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kultur ekipamenduen erabilera handiagoa bultzatu eta birkokatzearekin jarraitu.</li> </ul>
<b>3.7. Udal politikak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago euskara irakasteko edo bultzatzeko berariazko zentrorik. Udaletxeak ikastaroak bultzatu ditu interesa duen biztanleriarentzako. 2011 urteko ikastaroetan 27 pertsonen izen eman dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kirol ekipamenduen handitzea edo birkokapena bultzatu, udal lokalak kirol jarduetarako erabiltzea aztertuz.</li> </ul>
<b>3.8 Euskara udal jardueran</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udaletxeak uste du garrantzitsua dela partaidetza altu horri eutsi eta beste arloetara zabaltzen lagunduko duen formula aurkitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kirol asoziazionismoa eta kirol jardueren eskaintza bultzatu (udal lokalak erabiliaz).</li> </ul>
<b>3.9. Euskara eta kultura</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago beste udalerrri batzuetako euskaltegiekin hitzarmenik.</li> <li>Udalerrriak euskara teknikari bat dauka.</li> <li>Euskara Biziberritzeko Plana badago (2010-2012).</li> </ul>	
<b>3.10. Kultura ekipamendua eta horiek erabilera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal langile gehienek eskatzen den hizkuntza profila dute. Orokorrean, euskara zein gaztelera erabiltzen da udal zerbitzuetan, bata ez bestea ez delarik gailentzen.</li> <li>Zinegotzi guztiak elebidunak dira. Informazio Batzordeak nahiz Osoko Bilkurak euskaraz burutzen dira gehienetan.</li> </ul>	

















Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>3.11. Kultura jarduerak eta partaidetza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak Euskararen Erabilera Plana dauka (2008–2012), barne erabilerarako.</li> <li>• Udalak ez du tokiko tradizioei loturiko euskararen berreskurapen eta transmisiorako bestelako jarduerarik propio garatu.</li> <li>• Egungo ekipamenduak nahikotzat jotzen dira kultur jarduera gehienak egiteko.</li> <li>• 2012an kultur ekipamenduen birkokatze eta birrantolatze plan bat martxan ipini da.</li> </ul>	
<b>3.12. Herritarren dinamika kulturala</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur eskaintza une puntaletara mugatzen da. Gabonetan Kultur Astea ere antolatzen da.</li> <li>• Elkarrekin burutzen duten programazio zehatz bat dago.</li> <li>• Daturik eskura ez dagoen arren, uste da kultur gertaeren aurrean biztanleriaren erantzuna ona dela eta partaidetza handia lortzen dela.</li> </ul>	
<b>3.13. Kirol ekipamenduak eta horien erabilera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zeberioak duen tamaina kontutan izanda, dagoen elkarte kopurua handia dela, ondo antolatuta daudela eta aktiboak direla uste da. Horrek edozein ekimen martxan jartzea errazten du eta tokiko instituzioen eta herritarren arteko loturak sortzen ditu.</li> <li>• Udalerriak kirol ekipamendu gutxi ditu eta ez dira nahikotzat jotzen.</li> </ul>	
<b>3.14. Kirol jarduerak eta partaidetza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Frontoiaren erabilera handia dela uste da. Bolatokia ez da ia erabiltzen (ondare izaera du gehien bat).</li> <li>• Udalerriko kirol jarduerak jai garaietan antolatzen dira. Udaletxeak uste du bultzatu beharko liritekeela baina partehartzaileen eskasia oztopo handia da.</li> </ul>	
<b>3.15. Herritarren kirol dinamika</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren partaidetza bultzatzen diren kirol jardueren aurrean handia da. Biztanleria beste udalerrri batzuetara joaten da kirola egitera beraz, era honetako jardueren eskakizuna dago.</li> <li>• Udaletxeak kiroldegirako abonoak diruz laguntzen ditu.</li> </ul>	





## 4. ETXEBIZITZA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>4.1. Etxebizitza- parkearen ezaugarriak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Nagusi den etxebizitza mota baserriak eta eraiki berriak diren familia bakarreko etxebizitzak dira. Hiri lurzoruan blokeren bat ere badago.</li> <li>Etxebizitza parkea oso zaharkituta dago. Barreiatuak dauden baserri asko kontserbazio egoera txarrean daude.</li> </ul>	<p><b>Udal eta gairuko eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Saltzeko eta alokatzeko den babestutako etxebizitza eskaintza sustatu.</li> <li>✓ Hondamendian dauden etxebizitzaren zaharberritzea bultzatu, batez ere abandonatutako dauden baserriena, udalak ezar ditzazkeen neurriak aztertuz eta dirulaguntzei buruzko informazioa sendotuz.</li> <li>✓ Udala bitartekari izan eskaintza eta eskaera artean alokairu arloan: eskaera zenbatekoa eta nolakoa den kokatu eta tresna/mekanismoa bilatu bitartekaritzarako.</li> </ul> <p><b>Udalaz gairuko eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Alokairuko etxebizitzari bultzada eman.</li> </ul>
<b>4.2. Etxebizitzaren antzinatasuna eta zaharberritzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hutsik dauden etxebizitza gehienak azalera handiko baserriak dira eta indarrean dagoen araudiak ez du baserri bakoitzeko 2 etxebizitza baino gehiago eraikitzen uzten.</li> <li>Udalerriko etxebizitza parkearen zati handi batek zaharberritze beharra du.</li> <li>2010ean 172 etxebizitza zeuden exekutatzeko. Kantitate hau handia dela irizten da.</li> <li>Etxebizitzaren epe laburrerako eskaintza 12 etxe eraikitzean datza.</li> <li>2004 eta 2010 bitarte ez da babestutako etxebizitzarik eraiki.</li> <li>Babes Ofizialeko tasatutako 12 etxebizitza bukatzean daude, eta ez dira oraindik denak saldu.</li> </ul>	
<b>4.3. Higiezinaren eskaintza: etxebizitzaren eraikuntza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Zeberrioko Udalak ez du ezagutzen zenbatekoa den egun dagoen etxebizitza eskaera baina indarrean dagoen Plangintzak 165 etxebizitza berrien eraikuntza aurreikusten du, 16 udal etxebizitza tasatuak direlarik.</li> </ul>	
<b>4.4. Etxebizitza beharra eta eskaera eta eskaintza- eskaeraren balantzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitzaren esku dauden etxebizitza eskaerak aldaketa jasan dute 2005 eta 2010 bitarte eta, oro har, indizeak hazkuntza oso nabarerrmena izan du.</li> <li>Etxebizitza tasatuen eta alokairuzko etxebizitza babestuen eskaera egon daitekeela uste da.</li> <li>Zeberriok duen hazkuntza aurreikuspenaren arabera, exekutatzeko dagoen etxebizitza kopurua etorkizuneko eskaera asetzeko aski dela uste da salmentako etxebizitzaren kasuan, alokairuan egoera nolakoa den ez da ezagutzen ordea.</li> </ul>	
<b>4.5. Erakunde arloa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalak uste du beharrezkoa dela etxeak jausten ez uzteko mekanismoak bultzatzea.</li> </ul>	

## 5. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA






<i>Azpiemua</i>	<i>Egoera</i>	<i>Ondorio nagusiak</i>	<i>Hobekuntza helburuak</i>
<b>5.1. Eredu ekonomikoa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Establezimendu berrien sorkuntza tasak beheranzko joera erakutsi du 2005 urteaz geroztik.</li> <li>• Establezimenduen portzentai handiena zerbitzuen sektoreari dagokio, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren portzentaiaren oso antzekoa erakutsiz.</li> <li>• Eraikuntza sektorea nabarmentzekoa da establezimenduen laurdena osatzen baitu. Kopuru hau Udaltaldeko udalerrri guztien artean altuena da.</li> </ul>	<p><b>Udal eta gairdiko eskumeneoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Enpleguaren sustapenerako eta ekonomi garapenerako estrategiak bultzatu (azterketa egin eta gero mankomunatzea egokia den ala ez erabakiaz).</li> <li>✓ Enplegu eske dabilzan sektoreen beharrei egokitutako prestakuntza politikak bultzatu.</li> <li>✓ Lanbide heziketako eta prestakuntza jarraia eskaintzen duten zentroekin elkarlanean aritu enpleguaren eskaintza eta eskaeraren arteko harremana optimizatzeke.</li> <li>✓ Emakumea lan munduan sartzeko politikak bereziki indartu.</li> <li>✓ Telelanaren ezarpena hobetzen duten politikak implementatu.</li> <li>✓ Bultzada haundiagoa eman lehen sektoreari. Nekazal azokak antolatuz, larreak modu egokian kudeatuz, bertako kalitatezko produktuen salmenta eta ekoizpena faboratuz eta kontsumo taldeak sortuz.</li> <li>✓ Baso kudeaketa iraunkorreko jardunbideak bultzatu.</li> </ul>
<b>5.2. Jarduera ekonomikoaren maila orokorra</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpleguak pisu handiena du zerbitzuen eta nekazaritzaren sektoreetan eta pisu txikiagoa industrian eta eraikuntzan.</li> <li>• Zeberio da 1996-2008 urteetan zehar eskualdeko udalerrien artean BPG txikienetarikoa eta hazkuntza motelenetarikoa izan duen udalerrietako bat.</li> </ul>	
<b>5.3. Familiaren ongizate ekonomiko maila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalerrira iristea erraza ez denez, ekonomi jarduera berriak jasotzeko zailtasuna dago.</li> <li>• Sektore tertziarioa gero eta gehiago gailentzen da eta eraikuntza sektorea pixkanaka hazten doa. Aitzitik, industri sektoreak eta nekazaritzarenak Balio Erantsi Gordinari egiten dioten ekarpena txikituz doa.</li> <li>• Nekazaritza eta Eraikuntzaren sektoreak UT21 Nerbioi-Ibaizabalenaren dezente gainetik kokatzen dira.</li> </ul>	
<b>5.4. Lehenengo sektorea. Sektorearen egitura.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzuen sektoreak eskualdeko udalerrien batez bestekoak baino presentzia handiago du 2008an.</li> <li>• Bigarren sektorea UT21 Nerbioi-Ibaizabalen eta Bizkaia zein EAeren multzoaren batez bestekoaren oso azpitik dago.</li> </ul>	
<b>5.5. Lehenengo sektorea. Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonako guztizko errentaren eboluzioa 1997 eta 2006 bitarte hazkorra izan zen, ia beti UT21 Nerbioi-Ibaizabal eta Bizkaia zituztenen batez bestekoen gainetik kokatu zelarik.</li> <li>• 1989 eta 1999 artean nekazaritza azaleraren eta azken hamarkadan. 2000 eta 2008 bitartean nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen ekarpena erdira jaisten da.</li> <li>• Lehen sektorearen batez besteko pisua beheranzkoa da azken hamarkadan. 2000 eta 2008 bitartean nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen ekarpena erdira jaisten da.</li> <li>• Lehen sektoreak BEGari egiten dion ekarpena Bizkaiko batez bestekoaren gainetik dago.</li> </ul>	
<b>5.6. Baso azpisektorea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak uste du lehen sektoreari bultzada eman behar zaiola, dibertsifikazio handiagoa lortuaz, ez bakarrik baso azpisektorean zentratuz.</li> <li>• Basogintzaren azpisektorea gainbehera joan da 2010 urteaz geroztik UT21 Nerbioi-Ibaizabal osoan.</li> </ul>	
<b>5.7. Bigarren sektorea. Sektorearen egitura.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Titularitate pribatuko basogintza jarduera nagusitzen da, koniferoetan batez ere oinarritua.</li> <li>• Industria ez da udalerriko ekonomi egituraren jarduera nagusi gisa nabarmentzen.</li> <li>• Industri jardueraren adar nagusia zerrategiak dira.</li> </ul>	





Azpierenmua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>5.8. Bigarren sektorea.</b> <b>Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko udalerrien artean industri establezimendu tamaina txikiena erakusten duen udalerria.</li> <li>• 2008an eraikuntza sektorearen pisu erlatiboa UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duen batez bestekoa baino handiagoa da.</li> <li>• Eraikuntza establezimenduen pisua gainontzeko establezimenduekin alderatuz gero txikitu egin da 2009az geroztik.</li> </ul>	✓ Tokiko turismo sektorearen garapen handiagoa bultzatu udalerriko natur balioak eta baliabide historiko-artistikoak ardatz gisa hartuz.
<b>5.9. Zerbitzuen sektorea:</b> <b>Sektorearen egitura.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Industri sektoreak BEGari egiten dion ekarpena txikituz joan da azken hamarkadan.</li> <li>• Industri sektoreak pisu gutxien duen udalerria da UT21 Nerbioi-Ibaizabal osoan.</li> <li>• 2008an eraikuntza sektoreak udalerriko BEGari egiten zion ekarpena guztizkoaren %21,84 zen.</li> <li>• Eraikuntza sektoreak industriarenak baino presentzia handiagoa eta hazkorra du, nahiz eta enpleguaren txikitzea jasan izan.</li> <li>• Establezimenduen %67,16a zerbitzu sektorekoan dago, UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duen portzentaiaren antzera. 2008an ekonomi jardueraren %56,16 zen.</li> </ul>	
<b>5.10. Zerbitzuen sektorea.</b> <b>Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familien %95ak Ugao-Miraballesera erregulariki joaten da, nagusiki erosketak egitera.</li> <li>• Ostalaritza establezimenduen eta jatetxeen kopurua 2008 urteaz geroztik kopuru berean mantentzen dira UT21 Nerbioi-Ibaizabal eta Bizkaiaren azpitik.</li> <li>• Turismo alojamenduaren sektorearen pisua 29,16koa da, UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duena baino txikiagoa eta Bizkaiak duena baino handiagoa.</li> <li>• Udalak interesgarritzat jotzen du turismo sektorearen bultzada, eta baliabide natural eta historiko-arkitektonikoen turismorako potentziala dutela uste du.</li> </ul>	
<b>5.11. Turismo eta hostalaritza sektorea.</b> <b>Azpiegitura turistikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago udalaren turismo informazio punturik.</li> <li>• Ibilbideen eta ondare arkitektonikoen berri ematen duen panel bat badago.</li> <li>• Basquetourren 2009-2012 planean zerrendatuta dauden turismo baliabideak Gorbeiko Parke Naturala eta bidezidorlaritza dira.</li> <li>• Web orrian 4 ibilbide laburrei buruzko informazioa agertzen da.</li> <li>• Ondare historiko-arkitektoniko zabala du nahiz eta beraren kontserbazio egoera, oro har, egokiena ez izan.</li> </ul>	
<b>5.12. Turismo baliabide eta erakargarritasunak.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleria aktiboaren tasa % 49,29koa zen 2010ean, aurreko urteetako baino handiagoa.</li> <li>• Emakumeen jardura tasa 2010ean UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEko batez bestekoak baino txikiagoa da.</li> <li>• Okupazio tasa 2006an eskualdeko, Bizkaiko eta EAEko batez bestekoen gainetik zegoen. 2001 urteaz geroztik hazi egin zen.</li> </ul>	
<b>5.13. Biztanleria aktiboa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzu sektoreko okupazioak 2001 eta 2010 bitarte 11 portzentai puntu baino gehixeagoko hazkuntza jasaten du.</li> <li>• Industri sektoreko okupazioak gainbehera jasan du 2001 urteaz geroztik, okupatutako biztanleriaren laurdena baino gutxiagora iritsiz.</li> </ul>	
<b>5.14. Biztanleria okupatua.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraikuntza sektorearen okupazioa UT21 Nerbioi-Ibaizabal 21, Bizkaia eta EAEk dutena baino txikiagoa da eta 2006tik 2010 urtera bitartean jaitsi egin zen.</li> <li>• Nekazaritza sektoreko okupazioa da gehien jaitsi dena, bere portzentaia ia hutsaren hurrengoa</li> </ul>	

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
5.15. <i>Langabezia</i>		<p>izanik baina UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEk dauzkatenak baino zertxobait handiagoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gizon gazteen okupazio tasa 2006an UT21 Nerbioi-Ibaizabalek zuena baino txikiagoa zen baina handiagoa Bizkaia eta EAEkoak baino.</li> </ul>	
5.16. <i>Kontratazioa</i>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen okupazio tasa 2006an batez bestekoen dezente gaintik zegoen, genero arteko leizea nabarmenki txikiagoa izanik UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEkoa baino.</li> <li>Langabezi tasa 9,89%koa zen 2011ko azken hiruilekoan.</li> </ul>	
5.17. <i>Laneko mugikortasuna, nork bere buruari eustea eta autosufizientzia</i>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Langabezi tasak goranzko joera jasan du azken bost urteetan. Hala ere, ez da izan UT21 Nerbioi-Ibaizabal 21, Bizkaia eta EAEk jasan dutena bezain bortitza.</li> <li>Eskatzaileen %55 emakumenak ziren eta %45 gizonak, UT21 Nerbioi-Ibaizabalen alderantziz, non eskatzaile gehienak gizonak diren.</li> <li>2011 urtean mila biztanleko kontratu kopurua UT21 Nerbioi-Ibaizabalen batez bestekoaren azpitik dago.</li> <li>2010ean %9,8 kontratu mugagabe erregistratu zen, UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duen batez bestekoa baino handiagoa izanik.</li> </ul>	
5.18. <i>Enplegu eta prestakuntza politikak</i>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanaren autokontentzio tasak behera egin zuen 1996 eta 2001 bitarte.</li> <li>Autosufizientzia tasak behera egin zuen 1996 eta 2001 bitarte.</li> <li>Ez dago eskualde mailan enplegu sorkuntza eta orientaziorako zerbitzurik.</li> <li>Udalak ez du orientazio, prestakuntza eta enpleguari loturiko politikarik landu.</li> <li>Udalak lan eskatzaileen aldetik erantzun zabala izan duen lan poltsa bat ipini du martxan kontratu zehatz baterako.</li> </ul>	





## LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

### 6. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA


Azpiheremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
6.1. Lurralde eremua		<ul style="list-style-type: none"> <li>Bilbao Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren barnean dago.</li> <li>Udalerriaren lurraldearen %98 urbanizaezina da.</li> <li>Etxebizitzaren %71 bizitegi lurzoru urbanizaezinean daude, %14 bizitegi lurzoru urbanizagarrian eta soilik %15 bizitegi lurzoru hiritarreen. Azken honek udalerriaren azaleraren %1,26 betetzen du.</li> </ul>	<p><b>Udal eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Udal planeamenduaren berrikuspenarekin loturik ondorengo helburuak hausnartu:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Tokiko interesekoak diren eraikinen katalogoa barneratu udal planeamenduan.</li> <li>✓ Planeamenduan goi mailako planeamenduaren irizpideak txertatu.</li> <li>✓ Eremu librean eta berdeguneei dagozkien estandarrak handitu.</li> <li>✓ Jarduerak birkokatzea beren inguruen eragina murriztuz.</li> <li>✓ Zaharberritu gabe dauden arkitektura ondarearen elementuen zaharberritzea.</li> <li>✓ Hiri planeamenduan iraunkortasun irizpideak (dentsitateak, erabileren dibertsifikazioa, ingurumen eraginak, etab.) txertatzen jarraitu.</li> <li>✓ Nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babes jarduerak garatu.</li> <li>✓ Eraikuntzan eta zaharberritze lanetan energi eraginkortasuneko irizpideak txertatu.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Nerbioiko parke lineala ekologi korridore gisa bultzatu.</li> </ul>
6.2. Udal lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Industri lurzoru urbanizagarriaren 3,8 ha daude kualifikatuta eta garatu gabe daude.</li> <li>Egoitzarako hiri lurzoru finkatu gabean exekutatu gabeko 5.324 m2 geratzen dira, egoitzarako lurzoru urbanizagarrian, berriz, 5.650 m2 eta ekonomi jardueretarako lurzoru urbanizagarrian 17.079 m2.</li> <li>Soilik lurzoru ez urbanizagarriaren %8 da nekazaritzarakoa, abeltzantzarakoa eta landazabala. Baso eremu kontsolidatua nagusi da (84%).</li> <li>Azaleraren %83 inguru koniferoen basoak dira, jarraian belardiak daude, azaleraren %7,90arekin, eta, azkenik, hostozabalen basoak, azaleraren %5,03arekin.</li> </ul>	
6.3. Hiri egitura eta ehundura		<ul style="list-style-type: none"> <li>Lurzoru artifizializatua %1 baino gutxiago da.</li> <li>Udallerri oso barreiatua da: 31 landagune daude eta hiri lurzoruko 3 eremu.</li> <li>Barreiatutako etxebizitzaren garrantzia handi samarra da, %71 inguru.</li> <li>Herri parke, lorategi eta berdeguneeen portzentaia %9,76 da, Zautuolarrin batez ere kokatuak.</li> <li>Eremu librean sistema orokorrak ez du elkar konektaturiko sare bat eratzen. Hala ere, nekazaritza eta baso lurzoruarekin konektaturik dago.</li> </ul>	
6.4. Hiriko eta hiri inguruetako berdegunak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal planeamenduaren etorkizuneko berrikuspenean Udaletxeak aurreikusita dauka eremu libre eta berdeguneei dagokienean estandarrak diren ratioak betetzea.</li> <li>Ez dago sortzen duen ikus eraginaren ondorioz eraberritzeko beharra duen endakaturako paisaia ez eremurik.</li> <li>Zubialden eta Zabalen kokatuta dauden bi zerrategi etxebizitza eremuetatik urrun birkokatu beharra daude, zarata eta zerrautsa dela eta herritarrak gogaitzen baititu.</li> </ul>	
6.5. Hiripaisaia eta gune hondatuak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Nezazaritza eta Basogintza Antolatzekeo Lurralde Arloko Planak ez du Ingurumen Hobekuntzarako sailkatutako eremurik identifikatzen udalerrian.</li> <li>Indarrean dagoen udal planeamenduak ez ditu ondare elementu guztiak jasotzen eta ez du tokiko intereseko eraikinen katalogorik.</li> <li>Ez dago kultur ondarearen Babes Bereziko Planik.</li> </ul>	

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>6.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bilbao Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren LZPak udalerriko kokalekuak Lurraldearen Sarbide diren gune gisa identifikatzen ditu.</li> <li>• LZPak Zeberio "lehentasunezko nekazaritza garapeneko" udalerritzat hartzen du.</li> <li>• LZPak bigarren etxebizitzako sustapenak onargarritzat jotzen ditu.</li> <li>• Ekonomi jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza ekipamenduak Sortzeko LAPak Zeberio "garapen txikiko udalerrri" gisa sailkatzen du.</li> </ul>	
